



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ALKATETZAREN DEKRETUA

JAVIER ZUBIZARRETA ZUBIZARRETA, AZKOITIKO UDALEKO ALKATEAK; Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85ko legeko 21. artikuluan xedatutakoaren arabera,

AURREKARIAK

Urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Arrunta arautzen duen 39/2015 Legearen 133. artikulua, Lege edo Araudia izaera duten arauen garapen edo gauzaren prozeduran herritarren parte hartzea erregulatzen du, araua eraiki aurretik, herritarren eta arau horren eraginpeko izan daitezkeen erakundeen iritzia jasoko dituen kontsulta egin beharra dagoela ezarri.

Egun, Azkoitiko Udaletxea, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren inguruko erregulazio berri baten garapen prozesuan dihardu.

Urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Arrunta arautzen duen 39/2015 Legeak ezarri bezala, kontsulta publikoa arauaren testua idatzi aurretik gauzatzen bada ere, prestakuntza-lanek garapen aurreratuko maila hartu behar dute. Horrenbestez, egoki da Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erregulazioa kontsulta publikora bidaltzea, etorkizuneko arau horrek eragin ditzakeen herritar eta erakundeen iritzia ezagutze aldera, eta honela, gai honi buruz dagoen dokumentazioa herritarren interesen mesedetara moldatu aldera.

Gizarte Ongizate Saileko arduradun teknikoaren eta Gizarte Ongizate Saileko Zinegotzi-delegatuaren proposamenarekin bat etorriz, apirilaren 2ko Tokiko Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Lege Erregulatzailearen 21.1.s) artikulua esleitzen dizkidan eskumenez baliatuz,

ERABAKI DUT

LEHENENGO.- Udal Ordenantza garatu eta egin aurretik, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren inguruko kontsulta publikoa egitea, 20 laneguneko epean zehar.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Beharrezko informazioa biltzen duen dokumentuak Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren inguruko erregulazio berriaren Memoria osatzen du, Memoria hori ebazpen honetan atxikia dago eranskin gisara.

BIGARREN.- Ebazpen hau baliagarria izango da eta bere eraginak gauzatuko ditu Tokiko Korporazio honetako web gunean argitaratzen den egunetik aurrera: www.azkoitia.eus

HIRUGARREN.- Herritar, erakunde eta elkarteek bere iritziak helaraz ditzakete helbide elektronikoa honen bidez: gizar@azkoitia.eus

Agindu eta izenpetzen duena Alkate-Udalburu Jaunak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua, 2017ko irailaren 28ean

ALKATE-UDALBURUAK



2017 IRA. 28

Nire aurrean
IDAZKARIĀK